




Sortutako enpresen kopurua gutxitu da

EAEn sortu diren enpresen kopurua

Urte bakoitzeko urtarriletik abuztura bitartean




Iturria: INE.

Aurtengo lehen zortzi hilabeteetan, 2.000 enpresa baino gehixeago sortu dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Kopurua 2021eko aldi berean izandakoa baino %6,5 txikiagoa da. Hala ere, serie historikoak adierazten du 2009tik ohiko balioak izan direnekin bat datorrela.

Desagertutako enpresen kopurua zertxobait jaitsi da

EAEn desagertu diren enpresen kopurua

Urte bakoitzeko urtarriletik abuztura bitartean



Iturria: INE.


Urtarriletik abuztura bitartean, Euskadin 970 enpresa desagertu ziren, aurreko urteko aldi berean baino hamahiru gutxiago. Oro har, 2012tik ikusten da ixten duten enpresen kopurua murrizteko joera dagoela, baina azken bi urteetan kopurua igo egin da.



Iraileko KPIa %8,5era apaldu zen

Kontsumoko prezioen indizea

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: INE.

Irailean, EAeko KPIa %8,5ean kokatu zen, abuztuko balioa (%10,3) baino ia bi puntu beherago. Jaitsiera horren arrazoi nagusia elektrizitatearen prezioaren merkatzea da, baina erregaien eta garraio zerbitzuen prezioen jaitsierak ere lagundu zuen beheranzko norabidean.

Europako IPIa sendo hazi zen abuztuan

Euroguneko industria ekoizpena

Urte bakoitzeko abuztua. Indizea



Iturria: Eurostat.

Abuztuan, Euroguneko IPIa %2,5 handitu zen aurreko urtearen aldean. Bestalde, Europar Batasunari dagokion indizea %3,5 igo da. Ekipamendurako ondasunek eskuratu zuten hazkunderik handiena, eta energiaren ekoizpenak, ordea, behera egin zuen bi lurraldeetan.